


Portuko arrai salerosketa

Arrain merkatua: itsasoko burtsa

Duela zortzi ordu irten da portutik ontzia, hamar marinelekin. Itsasbaterreko arrantzan aritzen dira, eta 12 milia barneratu dira itsasoan, arrain kala bat aurkitzeko itxaropenez. Arrainik onena ekarri nahi dute, biltegia bete, eta inork baino lehen jarri salgai arrain merkatuan. Sirena hotzak eta kaiok egingo diete ongietorri portuan, eta denak prestatuko dira enkantea has dadin. Bizi-bizi joaten da salerosketa, batek oihu eta besteak keinu, kresal usain eta baskula bustien artean, eta irudi horrek bati baino gehiagori gogoraraziko dio beste merkatu mota bat, burtsa, alegia. Plastikozko oinetakoen lekuan gorbatak jarritz gero, eta panel digitalen inguruko arrain kutxen ordeztu ordenagailuak, ez legoke alde handirik, egia esan.



1



2



3



4



5



6

1. Goizeko 06:30. Sirenak jo du: egun argiarekin, ontziak portura

Ontzi bat kairantz hurbiltzen sumatu orduko, sirenak jakinaren gainean jarriko ditu guztiak. Kaien lehenengo sartzen direnek eskaintzen dute lehenik arraina. Agian ongi salduko da. Agian ez. Aurrez ezin da jakin merkatuak nola erantzango duen, eta bezperan prezio polita iritsi duenak gaur akaso ez du lortuko ontzizabeak nahi duen mailarik, eta erretiratu egin beharko du enkantetik. Goizeko zazpitan hasten dira salerosketak, ordurako arrainik sartu bada, jakina. Prozesua behin eta berriz hasten da, ordu erditik ordu erdira, arrain kaxarik geratzen den artean. Eguerdian bukatzen da enkantea, baina saldu ezinik dabiltzanean

edo erruz dagoenean, arrastia arte ere iraun dezake. Eta astelehenetan ere izaten da arraina, itsasoan ez baitu egutegiak agintzen, naturak baino.

2. Arraina erakustokian

Itsasbaterreko arrantzan aritzen den ontzi batek 500 kaxa arrain har ditzake. Duela bi hamarkada, ontzia porturatu arte, merkatuko zuzendariak ez zuen jakiten zer zekarren ontziak. Egun, teknologia berri esker, ontzi bat bere bidetik alden du daiteke jakinez gero enkanteren batean libre dagoela leku bat, edo salmenta hobea egingo duen beste arrain merkatu bat dagoela. Ontzi bakoitzak lagin bat uzten du merkatuan, ekarri duenaren erakusgarri eta orduantxe hasten da enkantea.

3. Bola: erosteko baimena

Arrain merkatuan banatzaileei edo zuzenean kontsumitzaileei iritsiko zaien arraina erosi ahal izateko, abal baten babesa eduki behar da. Handizkako saltzaileek, adibidez, banku abala behar izaten dute. Era horretan, txikizkariak, handizkariak eta kontserba-egileak erosteko baimena lortzen dute, bolatxo batek emana: zenbaki eta jarleku bat ageri du bola horrek, eta horri esker parte har dezakete enkantean. Mundu horretan ez dabilenarentzat oso zaila gertatzen da salerosketa jarraitzea. Denak ibiltzen dira urduri, baita panel digitalak ere, eta segundo milaren gutxitan aldatzen dira zifrak. Enkante-gidariak prezio bat jartzen

du enkantea abiatzeko, eta jaisten joaten da, bola-jaberen batek onartu arte. Eskaririk ez eta salmenta txarra egiteko arriskua ikusten bada, arraina erretiratu egiten da, geroxago saiatzeko. Tratuan ados jarrita, kaxei etiketak ipini eta eroslerari ematen zaizkio.

4. Etiketa eta guzti

Arrain merkatuetan notario-lana ere egingo dute, eta arrain guztiari jartzen dizkiote ziurtagiriak. Etiketa jartzen diote saldu den arrain kaxa bakoitzari, eta hark adierazten du zein salmenta-izen duen arrainak, zein ekoizpen-metodoren harrapatu duten (itsasoan arrantzatuta duten, haztegikoa den edo akuikulturatik lortua) eta zein izen duen arrantzatuta edo hazi duten lekuak.

5. Zamatuta eta garraiatu

Arrandegi jakinetako furgoneta txikiak, penintsularako lekuren batera doazen kamioiak, hozte-sistematik berrienak darabiltzaten trailerrak eta aireportuetara doazen kamioiak ere bai. Noiz zamatuko dituzten egoten dira ibilgailuak. Arraina sartzen eta pilatzen hasi aurretik, beste datu bat jarri behar izaten zaio etiketari: nola aurkeztuta doan arraina (erraiak hustuta, buru eta guzti edo gabe, xerratan) eta nola manipulatu dute garraiatu ahal izateko: ur gazia erantziko dioten, gatz, hotza. Denborak agintzen du: kontuzko gauza da oso arraina. Fresko behar du mahaian eta arin ibili behar izaten da itsasotik atera ondoren.

6. Arrainjaleak

Arrain merkatuak egunero berritzen du bere jarduna. Arrantzaleak arraina ekarri nahi izaten du, eta gero ikusi egin behar izaten da merkatuak zer harrera egingo dion. Jendeak zer nahi duen jakinda irteten dira maiz itsasora: hegaluzetara edo txitarrotara abiatzen dira, baina beti ezin izaten da nahi den hori arrantzatuta. Eta itzuli ere garaiz egin behar izaten dute, goizeko zortzietan errazago saltzen baita hamarretan baino. Lasaitasun bat badaukate, hala ere: inguru honetan, kontsumitzaile bakoitzak 14 kilo arrain fresko jaten ditu urtean (Espainia da munduan arrain gehien jaten den bi herrialdeetako bat). //